

OSATEK S.A.-KO ZUZENDARI KUDEATZAILEAREN XEDAPENA, OSATEK S.A.-N DESTINOA DUEN LAGUNTZAILEAREN KATEGORIAN LAN-KONTRATUKO LANGILE FINKO IZAERA MEREZIMENDU-LEHIAKETAREN BIDEZ ESKURATZEKO HAUTAKETA-PROZESUKO EPAIMAHAIA IZENDATZEKO DENA.

OSATEKeko zuzendari kudeatzailearen 2022ko abenduaren 13ko Xedapenaren bidez, lanpostuak lanbide-kategorien arabera banatzea onartu zen, eta lan kontratudun finko izateko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrak arautu ziren, aldi baterako enplegua egonkortzeko ezohiko deialdiaren bidez.

OSATEKeko zuzendari kudeatzailearen 2022ko abenduaren 14ko Xedapenaren bidez, merezimendu-lehiaketa bidez Osatek, S.A.ko laguntzailearen kategorian lan-kontratudun finko izateko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak onartu ziren.

Oinarri orokorrak onartzen dituen Xedapenaren 11. oinarrian aurreikusitakoaren arabera, OSATEKeko zuzendari kudeatzaileak hautaprobak kalifikatuko dituen epaimahaia izendatuko du.

Horregatik, ematen zaizkidan eskumenen arabera, honako hau

XEDATU DUT

Bat.- Osatek, S.A.n destinoa duen laguntzailearen kategorian lan-kontratuko langile finko izaera merezimendu-lehiaketa bidez eskuratzeko hautaketa-prozesuko epaimahaia izendatu eta eratztea.

Bi.- Hautaketa-organoa

Hautaketa-organoa honako pertsona hauek osatuko dute:

Lehendakaria: Iñaki Uriarte Barandiaran

Bokalak: Miguel Herrera García de Cortazar
José Lorz Tolosa
Carmen Calderón Fernández

Idazkaria: Leire Escabel Echave

Hiru.- Betearazpena

Xedapen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean. Jakinaraz bekie interesdunei.

Lau.- Argitalpena

Xedapen hori OSATEKen webgunean argitaratuko da: www.osakidetza.euskadi.eus/servicios-osatek/-/oferta-de-empleo-2022 / eta Campo & Ochandiano enpresaren webgunean: www.campo-ochandiano.com